



Maddiren erlojua



Ilusioz gainezkako 8 urte bete zituen Maddik, eguzkiak ere irrifarra egiteko gogoia zueneko egun hartan. Puzzle, liburu eta beste zenbait opariren artean, Londresen disc-jockey lanak egiten zituen osabaren paketetxo bat iritsi zitzaion.

- Zeren zai zaude paketetxoa irekitzeko? -galdetu zion amak-.
- Ez dakit, ama, halako kezka bat daukat.
- Kezka? Zerena!
- Jakingo banu...

Ireki zuen paketetxoa eta kuartzozko ordulari pinpili-panpala pinpoilpolitara horietako bat ikusi zuen bertan. Eta osabak idatzitako tarjetatxo bat: *Maddi maitea: Zorionak !!!! Zai nago uda noiz iritsiko zu ikusteko. Musu bakar bat, baina haundi-haundia.*

Berehala ahaztu zen Maddi beste opari guztietaz, erlojua eskumuturrean jantzi eta han ibili zen etxeko guztiei bere erlojua erakusten.

- Jo, ze ondo! Hau da txoltoa! Ikastolara joaten naizenean, ordularia erakutsiko...
- Ez duzu erlojua ikastolara eramango.
- Jope...

8 urte bete zituenetik, gauza harrigarriak gertatzen hasi zitzaizkion Maddiri: egunsentian afaldu nahi izaten zuen, postretik hasi nahi izaten zituen bazkariak ...Maddik, dena alderantziz, esaldiak ere alderantziz esaten hasi zen arte:

- jama, nonugE
- Zer esaten ari zara?
- jnonugE

Diren eta ez diren espezialista guztiengana eraman zuten alaba. Begiratu zioten mingaina behetik eta goitik, baina ez zioten ezer bitxirik aurkitu; begiratu zioten eztarria eta ezta ezertxo ere. Eraman zuten okulistarengana, baina ezer ez. Begiratu zizkieten begiratu beharreko guztiak, baina alferrik. Sendagileek ez zioten ezertxo ere aurkitzen.

Hala ere, begien bistan zegoen zerbait gertatzen zitzaioela. Aspaldian ikasiak zituen gauzak ahaztu egin zitzaizkion, irakurtzea, batuketak egitea eta ohean pixa egiten hasi zen. Txikitzen, txikitzen, txikitzen joan zen, txupetea eskatu zuen... Telebistatik ere etorri ziren Maddiren kasu harriagarriari buruz programa luze bat egitera.

- Hazi beharrean txikitzen ari zaigu! -zioen aitak-.
- Martxa honetan sehaskara eta sehaskatik nire sabelera. Hau da hau martxa! -zioen kezkatu rik amak-.

Eta hainbeste txikitu zen, erlojua eskumuturrean dantzan bezala zuela eta gurasoek erlojua kendu zioten. Ondoren, Maddi normaltzen hasi zen, hazten, ongi hitz egiten, denetik eta ohizko orduetan jaten

- Zer gauza! -esan zuen aitak-. Zer gertatu ote zaio? Zer arraio ote du erloju madarikatu horrek?

Eta erlojua eraman zuten oraingoan erlojugilearengana. Guk ez dakigu zergatik ez zuten Maddiren gurasoek horrela jokatu hasieratik. Erloju bat nora arraio eraman behar ote da erlojugilearengana ez bada?

Eta erlojariak:

- A ze erloju bitxia! Non erosi duzue? Ez nuen behin ere horrelako erlojurik ikusi.
- Zer bada?
- Eskuin aldera mugitu beharrean, ezkerrera mugitzen da. Atzeraka. Karramarroak bezala.